

Bilboko Itsas Museoa "Antartikaren aurkako borroka"

Bilboko Itsas Museoak 1916an Hegoburura joandako espedizio baten estutasunak argazkitan jaso ditu

Bidaia arriskutsu baterako gizonak behar dira. Soldata apala. Hotz izugarria. Hilabete luzeetako gaua. Arrisku etengabea. Bizirik itzultzea ez da ziurra. Ohorea eta ospea, bidaia arrakastatsua izanez gero. Iragarki horrekin egin zuen Ernest Shackletonek Antartikara egin asmo zuen espediziorako bidaide bilaketa. Hegoburuko kontinente izoztua alderik alde oinez zeharkatzeko asmoa zuten. Bidean, baina, oztopo gehiegi gainditu behar izan zituzten. Abentura bila joan ziren 28 gizonak lanak izan zituzten bizirik itzultzeko. Hala ere, bi urteko odisea latza onik bukatu ahal izan zuten guztiek. Eskifaia horren parte izan zen Frank Hurley argazkilari australiarra. Izan ere, Shackletonek ikus-entzunezko konpainia bat sortu zuen espedizioaren berri eman ahal izateko. Aurretik inguru haietara egin ziren bidaietan lekukotza grafikoek garrantzi handia izan zuten. Horretaz jakitun, proiektua finantzatzeko baliabide aproposa izan zitekeela iruditu zitzaion. Hala, bada, Hurleyk gertatzen zen ororen berri jasotzen zuen.

Argazki haietatik abiatuta, New Yorkeko Historia Naturaleko Amerikako Museoak erakusketa sortu zuen: Izotzean harrapatuta erakusketa ibiltaria. Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoan ikus daiteke, Caixa Catalunya eskerratik uztailaren 12a bitarte. Hiru bisita gidatu antolatu dituzte. Jeronimo Lopez erakusketaren komisarioak, Unai Basurko nabigatzaileak eta Jose Carlos Tamayo mendizaleak bakoitzak bere ikuspegitik azalduko dute 1914ko bidaia hartan jazotakoa.

Erakusketa izugarria da Jeronimo Lopez komisarioaren esanetan. Egite gogoangarri bat eta sekulako paisaia biltzen ditu. Haren ustetan, Frank Hurleyk egindako argazkien kolekziorik onena da. Berak ateratako argazkiak erabili dira, handitu eta erakusketa osatzeko, azaldu du. Argazkietarako zaletasuna duen edonork erakusketa honek artistikotik asko duela esango du, Lopezen ustetan. Gaztetxoei talde lana eta elkartasuna zer diren azaltzeko baliagarri irizten dio, halaber.

Orotara, 167 argazki dira. Bidaiaren alde teknikoa eta zientifikoa ikus daitezke. Itsasontzia izotzetan nola trabatu zitzaion, salbatxalupetan nola abiatu ziren eta izozmendiak nola igaro zituzten. Estutasunez aparte, egunerokotasuna jasotzen saiatu zen Hurley. Besteak beste, izotz gaineko futbol partidak eta igandeetako opera saioa ikus daitezke. Baina erakusketa argazkiak baino gehiago da. Bestelako elementuekin osatu dute. Azken batean espedizio hura Antartika ezagutzeko aitzakia bihurtu dute. Eta, bidenabar, Iparburura gerturatzeko ere aprobetxatu dute.

Ikus-entzunezkoen zikloa

Bi inguru izoztuotako aberastasun ekologikoa, zientzialariek gaur egun egiten dituzten ikerketak edota Antartikoko Akordioa, abenduan 50 urte beteko baititu, azaltzen ditu erakusketak. Bitxikeria moduan Antartikako gune militarretan dauden webcamekin konexioa egiten du pantaila handi batek. Hala, une horretan bertan zer gertatzen den ikus dezake bisitariak. Erakusketarekin batera, gaiarekin lotutako dokumentalak ikusgai egongo dira museoaren auditoriumean. Denen artean, nabarmentzekoa 1919an Frank Hurleyk berak estreinatu zuena. Lehenengo pertsona kontaktatzen du jazotako guztia, berak hartutako irudien bitartez.

' IZOTZEAN HARRAPATUTA '

Non. Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoan.

Noiz. Gaurtik uztailearen 12a bitarte.

Sarrera. Bisita gidatuetarako izena eman behar da: (0034) 94-608 55 00.

Dokumentalak ikusteko sarrera, doan.

Ibai Maruri.